

# Asisko gutuna

2009ko maiatza. 3. printzipioa: Eguneroko bizitza:

kanporantz, elkartasuna.

7. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu, partekatu edo bultzatu nahi duten laikoen sare sozial irekia da.

Asis Sarearen hirugarren printzipioaren inguruan gogoeta eta otoitza egiteari eskaintzen diogu hil hau: besteengana, solidaritatezko jarreran bizi. Zera da gauza: besteengana eta mundura irekiak bizi, esker onez, esku zabaltasunez, konpromisoz eta dohaintasunez. Garenetik eta daukagunetik zerbaite eman eskuzabalki, maitasun hutsezko irizpidez.

Eta hori eguneroko bizitzako solidaritate-konpromisoan gauzatzen da: familiarteko edo adiskideren bati lagundu,

premian dagoen lagun hurkoren bati, hasi berria den lankideren bati lagundu, ekintza solidarioren bati diru-laguntza eman, erakunde sozial nahiz humanitario batean esku hartu, edo bakearen eta justiziaren aldeko lanean.

Gure bizitza ezin da betea izan lagun hurkoarekiko elkartasun esperientziarik gabe. Horregatik gonbidatzen zaituztegu, ahal duzuen neurrian hau kontuan hartzera eta eguneroko bizitzan solidaritate-jarrera honetan aurrera egitera.

## Gogoetarako gaia

### Maitatu ahal izan

Gustatuko litzaiguke gure bizitza on egiteko erabiltzea, gure existentziagatik mundua pixka bat hobea izatea. Bete-betea bizi nahi dugu, pertsona onak izan, maitatu ahal izan.

Ez dugu sufritu nahi, ez dugu inolako minik nahi, eta konturatu gabe geure bihotza itxiz goaz apurka-apurka. Modu harrigarrian, sufritu baino nahiago dugu zoriontsu ez izan. Eta gure bihotz itxia babestu egiten da, zoriontasunetik babestu, eta horrela gorde egiten da, maitasunetik gorde.

Baina zer gertatzen da Ebanjelioak dioen altxor ezkutua agertzen denean, eta aurkitzen duenak dena saldu eta hura erosten duenean? Zer gertatzen da Jainkoaren maitasuna agertzen zaigunean, geure bihotza sendatuz eta geure beldurra ere azpiratuz?

Historian zehar gizon-emakume asko aurkitu dira aurrez aurre Jainkoarekin, dena Haren alde utziz. Frantzisko izan zen horrelako lekuko handi bat. Denbora asko eman zuen bila, eta bete-betea Jesusen pertsonaren maitasun azkengabearekin aurkitu zenean, Jainkoak

sorkari guztiei dien maitasuna bizitu zuenean, jakin zuen jakin hor zegoela altxorra. Asisko enparantzan herriaren aurrean biluzik gelditu zen; hortik aurrera ez zuen nahi izan Jesusen maitasunarekin aurkitzea eta haren nahia egitea besterik. Jauna, nik zer egitea nahi duzu? Hori izan zen Frantziskoren galdera nagusietako bat. Eta horrela bihurtu zen Jainkoaren maitasunaren zerbitzari. Horretara jarri zuen bere bizitza: maitatu ahal izatera, doan hartua doan ematera.

Gu ez gara Frantzisko, baina guk ere soma dezakegu Jainkoaren erregali harrigarria isiltasunean, geure baitan, otoitzean, elkartasunean. Jainkoa gure bihotza baino handiagoa da eta egin gaitzake irekiagoak, Bera da gure maitasunaren iturri.

Oinazeko mundu honetan sufrimenduz inguratutik, errugabeen saminak min dagigunean, eska diezaiokegu Jainkoari, gorde gaitzala prest, ez gaitzela axolagabe izan, eman diezagula bihotza irekitzeko adorea, maitatzeko ahalmena.

## Ebanjelioko pasartea: Lk 25-37

Orduan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion: –Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko? Jesusek esan zion: –Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu? Hark erantzun: –Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz. Eta lagun hurkoa zeure burua bezala. Jesusek erantzun zion: –Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu. Baina lege-maisuak, bere galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, galdetu zion Jesusi: –Eta nor da nire lagun hurkoa? Jesusek erantzun zion: –Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan erori zen; zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Apaiz bat gertatu zen, hain zuzen, bide hartan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta

aurrera jo zuen. Gauza bera egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar kantua, oparien prestaketa, hamarrenak biltzea eta tenpluko polizi lana. Batek ere: ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: «Zain ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut». Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin? Lege-maisuak erantzun zion: –Hartzaz errukitu zenak. Jesusek esan zion, orduan: –Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste.

## San Frantziskoren testua: Testamentua 1-3

*“Jaunak honela eman zidan niri, anai Frantziskori, errukiz tratatu nituen. Eta bekatuetatik aldentzean, bibotz-berritzen hastea. Bekatutan nengoela, oso samin zitzaidana gozo biburtu zitzaidan porputzarimentzat. Eta handik alditxo batera, munduko Baina Jaunak berak eraman ninduen baien artera, eta bizieratik atera nintzen.”*

Jauna da Frantziskorentzat den guztiaren iturri. “Jaunak eman zidan... Jaunak eraman ninduen...” dena bizitzan erregali eta Jaunaren dohain bihurtu zitzaion, hasi bere giza izaera onartu ahal izatetik, hau da “bekatuetan egotetik”, eta “penitentzia egitera, hau da, bihotz-berritzera, aldatzera, samin zitzaiona gozoz bizitzera iritsi ahal izan arte. Jainkoaren Maitasunak aurkitua izatea izan zuen erregaliarik handiena. Aurkikuntza horretatik sortu zitzaion guztienganako gainezkako maitasuna, batez ere gizartean azkenak direnentzako maitasuna eta konpromisoa.

## Otoitza: “Egin nazazu zure bakearen zerbitzari”

Jauna, egin nazazu zure bakearen zerbitzari.  
Gorrotua nagusi den lekuan, nik maitasuna jar dezadala,  
iraina nagusi den lekuan, barkamena jar dezadala,  
haserrea nagusi den lekuan, batasuna jar dezadala,  
gezurra nagusi den lekuan, egia jar dezadala,  
zalantza nagusi den lekuan, sinesmena jar dezadala,  
etsipena nagusi den lekuan, itxaropena jar dezadala,  
ilunpea nagusi den lekuan, argia jar dezadala,  
tristura nagusi den lekua, poztasuna jar dezadala.

Nire jokabide izan dadila, Jauna,  
ez ni poztua izatea, besteak pozteak baizik,  
ez ni onartua izatea, besteak onartzea baizik,  
ez ni maitatua izatea, besteak maitatzea baizik.  
Izan ere, Zuk erakutsi diguzu,  
ematea dela, hartzaile izateko bidea;  
norberaz ahaztea dela, nor bere burua aurkitzeko bidea;  
barkatzea dela, barkamena iristeko bidea;  
eta hiltzea dela guretzat, betiko bizitzara berpizteko bidea.

## Gutuneko azken hitzak

Aukera egin beharrean gara beti geure bizitzan: sufritzeko beldurrez geure baitan bildu eta horrela bizi gabe bizi, edo bestela arriskatuz besteei emanak bizi eta horren ondorioak onartuz, zoriontsuak izan.

## 2009ko ekaineko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate ekaineko erreferentzia guztiak:

1 Mk 12, 1-12	7 Mt 28, 16-20	13 Mt 5, 33-37	19 Jn 19, 31-37	25 Mt 7, 21-29
2 Mk 12, 13-17	8 Mt 5, 1-12	14 Mk 14,12-16.22-26	20 Lk 2, 41-51	26 Mt 8, 1-4
3 Mk 12, 18-27	9 Mt 5, 13-16	15 Mt 5, 38-42	21 Mk 4, 35-41	27 Mt 8, 5-17
4 Mk 12, 28b-34	10 Mt 5, 17-19	16 Mt 5, 43-48	22 Mt 7, 1-5	28 Mk 5, 21-43
5 Mk 12, 35-37	11 Mt 10, 7-13	17 Mt 6, 1-6.16-18	23 Mt 7, 6.12-14	29 Mt 16, 13-19
6 Mk 12, 38-44	12 Mt 5, 27-32	18 Mt 6, 7-15	24 Lk 1, 57-66.80	30 Mt 8, 23-27

### Oharrak:

Asis Sarearen ezaugarri nagusia da irekia izan nahi duela eta bere asmoa biderkatzea. Irekitasun hau sarean parte hartzen dugun bakoitzari egitea dagokigu. Guztiok biderka dezakegu Asis Sarea, hileroko Gutun hau jasotzera edo hileroko azken ostegunetan 19.30ean, ohiko lekuetan, ospatzen dugun otoitzaldian parte hartzera nor gonbida dezakegun pentsatuz.

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua [asissarea@arantzazu.org](mailto:asissarea@arantzazu.org) helbide elektronikora.